

Mondragon Unibertsitateak 2006/2007 ikasturtea irekitzen du Oñatin egindako ekitaldi ofizial batean

2007/08/05

Honakoak aritu dira irekitze ekitaldian: Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Jesús Catania MCCko presidentea, Tontxu Campos Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua, eta Inaxio Oliveri Mondragon Unibertsitateko errektorea.

Jesus Goienetxe Mondragon Unibertsitateko presidentek 2005/2006 ikasturtearen Memoria aurkeztearekin hasi da ikasturtearen irekitzea. Jarraian, XXI. mende hasierako euskal kooperatibistei buruzko hitzaldia eskaini da. Hitzaldia Joseba Azkarraga Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Humanitateen saileko zuzendariak eskainiko du.

Ondokoak ere etorri dira ekitaldira: Joxe Joan Gonzalez Txabarri ahaldun nagusia, Juan Ignazio Pérez Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea eta Jaime Oraá Deustuko Unibertsitateko errektorea.

Oñatin, 2006ko urriaren 9. Mondragon Unibertsitateak 2006/2007 ikasturtea ireki du gaur, urriaren 9, eguerdiko 12etan, ekitaldi ofizial batean, Oñatiko Santa Ana ekitaldi aretoan.

Honakoak aritu dira irekitze ekitaldian: Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, Jesús Catania MCCko (Mondragón Corporación Cooperativa) presidentea, Tontxu Campos Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua, Jesus Goienetxe Mondragon Unibertsitateko presidentea eta Inaxio Oliveri Mondragon Unibertsitateko errektorea. Ondokoak ere etorri dira irekitze ekitaldira: Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako ahaldun nagusia, Juan Ignazio Pérez Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea eta Jaime Oraá Deustuko Unibertsitateko errektorea.

Jesus Goienetxe Mondragon Unibertsitateko presidentek 2005/2006 ikasturtearen Memoria aurkeztearekin hasi da irekitze ekitaldia. Jarraian, Joseba Azkarraga Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Humanitateen saileko arduradunak hitzaldi bat eman du XXI. mendeko euskal kooperatibistei buruz. Egokitu ala aldatu zen hitzaldiaren mamia, eta titulua, berriz, "Euskal kooperatibistak doinu egokiaren bila XXI. mende hasieran: egokitu ala aldatu?".

Mondragon Unibertsitatea

Mondragon Unibertsitatea 1997an eratu zen unibertsitate gisa, nahiz eta haren hiru fakultateak askoz lehenagotik zebiltzan, banaka. Hamar urte joan dira eraketa egunetik, eta erakundeak gauzak egiteko bere era sendotu du harrezkero. Berak sortutako irakaskuntza metodoari eta bere ezaugarri desberdinei esker, Mondragon Unibertsitatea unibertsitate erakunde sendoa da egun, eta ezaugarri espezifiko hauek ditu: lotura estua enpresarekin, ikasleen enplegarritasun handia eta kalitatezko prestakuntza. Irakaskuntza sistema on baten bidez lortzen du kalitatezko prestakuntza hori. Sistema horrek, ezagutza zientifiko-teknikoak ez ezik, gaitasunak eta balioak ere transmititzen baititu.

Mondragon Unibertsitateak hiru ezagutza arlotan dihardu lanean: zientifiko-teknikoan (**Goi Eskola Politeknikoaren** bitartez), enpresarenean (**Enpresa Zientzien Fakultatea**) eta humanistikan (**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**). Egun, 4.073 ikasle dabilta unibertsitate honetan, graduako eta graduondoko prestakuntzan. Mondragon Unibertsitatearen eskaintza akademikoa honela osatzen da: lehen eta bigarren zikloetako **24 titulazio guztira, ingeniariaren, enpresa ikasketen eta hezkuntzaren eremuei lotuak; 29**



graduondoko titulu, eta 5 doktoretza.

Bere hitzaldian, **Jesus Goienetxe Mondragon Unibertsitateko presidentea** unibertsitateko ikasleen laneratze indizea aipatu du, Eusko Jaurlaritzak egindako enplegarritasun txostenetik ateratako datuekin. Izan ere, Egailan sozietate publikoak azterketa bat egin zion 2002ko promozioari (696 ikasle), eta ikasle horien laneratze indizea % **98,9koa da**, hau da, ia totala, zeren promozioa ikasleen % 1,1ek bakarrik (7 lagun) ez baitu egin lanik sekula. Datu horrek agerian uzten du MUren eta enpresen arteko lotura estua; agerian uzten du, halaber, nolako ahalegina egiten duen MUK bere prestakuntza lan-merkatuko premia beti aldakorrei egokitzeko.

Eskaintza akademikoaren etengabeko egokitzapena, jakina, lan merkatuak eta egungo gizarteak eskatzen dituzten premiekin dago lotuta zuzenean. Izan ere, eskaintza guztiek profil eta ezaugarri zehatz batzuk dituzte, merkatuaren premiei eta eskakizunei erantzuteko.

Inaxio Oliveriren hitzaldia

Mondragon Unibertsitateko egungo errektoreak, Inaxio Oliverik, irekitze hitzaldi bat eman du. Hitzaldiak esanahi berezia zeukan berarentzat, hau izaki azken ikasturtea hura errektore dena, datorren otsailean jubilatuko baita. Oliverik azaroan utziko du kargua, eta **Josu Zabala** Fagor Etxetresna Elektroko-eko egungo Negozio gerenteak ordezkatu du. Lankidetzaren periodo bat izango da otsaila arte, kanpora doan errektorearen eta etorri berriaren artean.

Egungo errektoreak Mondragon Unibertsitateak berak sortutako prestakuntza eredu aipatu du aurrea. Eredu horrek espezializazioa eta espezifikotasuna ekarri dizkio unibertsitateari, eta horiek dira unibertsitate honen osagai bereziak eta etorkizunerako gakoak. Jarraian, Oliveri jaunak esan du pozgarriak zaizkiola Egailanen txostenetik ateratako datuak, non ikasleak pozik ageri baitira beren irakasleekin eta jasotako prestakuntzarekin. *“Datu horietan ageri da ongien ikasleek eta enpresek nola baloratzen duten gure lana”*, erantsi du errektoreak.

Datu horietan eta enplegarritasunarenetan ikusten da, halaber, gizarteak MUko prestakuntzaren kalitateaz duen iritzia. Datu edo adierazle horiek etapa baten amaiera adierazten dute, eta errektoreak berak *“eratze eta sendotze etapa”* deitu dio amaitu berri denari.

Unibertsitateak aurrean estreinatuko dituen berritasun akademikoak ere aipatu ditu Oliverik. Bitan banatu ditu: titulazioen egitura berrira egokitutako zazpi master ofizial berriak, eta ekintzailetzarekin lotutako programa espezifiko bat garatzea, zeharkako gaitasun gisa sarturik hura titulazio guztietan. Unibertsitateak ikasturtean zehar martxan ipiniko dituen beste berritasun batzuk: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziaturako bigarren zikloan, bereziki jarduerak horretara zuzendutako lerro bat; Master bat Ekintzaileen Prestakuntzan, eta oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzeko proiektua.

Mondragon Unibertsitateko errektoreak honako hauek jo ditu Europako unibertsitateak modernizatzeko lehentasuntzat: norik bere proiektua eta kalitate-kultura bereganatzea; sistemaren eta unibertsitateen kudeaketa hobetzea, eta finantziarioa bultzatzea, egokitze eta trebatze prozesuak bermatzeko. Horiexek dira, Oliveriren iritzian, Europako unibertsitateek epe ertainean aurre egin beharreko eginkizunak. Mondragon Unibertsitateak aktiboki parte hartu nahi du, eta parte hartu behar du, horretan, erakundeekin eta gainerako euskal unibertsitateekin lankidetzan Euskadiren etorkizunerako funtsezkoa dena lortzeko: goi mailako prestakuntza hobetzea.

Inaxio Oliverik ohartarazi du egun unibertsitateak berritze prozesu sakon batean murgilduta daudela, gizarte berriaren prestakuntza premiei erantzuteko. Errektorea baikor agertu da unibertsitatearen inguruan gizartearen eta erakundearen artean hitzarmen bat iristean, orain inoiz baino baldintza hobekien omen daude eta. Arduradunaren iritzian, hitzarmen hori euskal gizarte politiko eta zibilaren adostasun zabalaz egin behar da, unibertsitateak hobetzeko epe luzeko politika bat izan dezan. Ildo horretan, azaldu du *“bikaintasuna ez dela eraikitzen gauetik goizera; denbora, segurtasuna, bitartekoak eta unibertsitateen benetako konpromisoa behar direla, gu prest gaude konpromiso horretarako ziur, eta, jakina, unibertsitateek kontuak eman behar dizkiote gizarteari gero. Hauxe da gure helburua: izan dadila euskal unibertsitate sistema euskal herritarren garapen pertsonalaren, ongizatearen eta kohesio sozialaren oinarri. Horixe da herri honi eskain*

diezaiokegun zerbitzurik onena. Horretan ari gara”, amaitu du Inaxio Oliverik.

www.mondragon.edu

DATUAK

- Eskaintza akademikoa
lehen eta bigarren zikloetako 25 titulazio; graduondoko 29 titulu; 5 doktoretza
- Ikasleak guztira
4.073
- Laneratze indizea
98,9%
- Internazionalizazioa
72 hitzarmen atzerriko unibertsitatekin, ikasleen mugikortasuna sustatzeko
- Ikerketa jarduera
jarduera totalaren % 35